



Ebazpena, Zerbitzu zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko diru-laguntzen araubidea arautzen duen lege-aurreproiektua egiteko aurretiazko kontsulta egiteko dena

Resolución de la Directora de Servicios por la que se somete a consulta previa la elaboración del Anteproyecto de Ley reguladora del régimen de subvenciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko laguntzen araubidea arautzen duen lege-aurreproiektua egiten hasteko asmoa dauka.

El Departamento de Economía y Hacienda del Gobierno Vasco tiene previsto iniciar la elaboración del Anteproyecto de Ley reguladora del régimen de subvenciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak, 133.1. artikuluan xedatzen duenez, arau-xedapenaren proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat egingo da administrazio eskudunaren atariaren bidez, eta kontsulta horretan, etorkizuneko arauak eragin ahal dien pertsona eta erakunde esanguratsuenen iritzia jasoko da.

El artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas dispone que, con carácter previo a la elaboración de un proyecto de disposición normativa, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente, en la que se recabará la opinión de las personas y organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma.

Kontsultak alderdi hauek jaso behar ditu:

La consulta se debe referir a los siguientes aspectos:

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera arautzaile eta ez-arautzaileak.

- Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
- La necesidad y oportunidad de su aprobación.
- Los objetivos de la norma.
- Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Hori dela eta, xedapena egin aurreko kontsultaren izapidea bete nahi da, arauaren eraginpeko herritarrek eta entitateek parte hartzeko eta arauari ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

Por ello, se pretende dar cumplimiento al citado trámite de consulta previa a la elaboración de la disposición, a los efectos de que la ciudadanía y demás entidades afectadas por la norma tengan la posibilidad de participar y realizar aportaciones a la norma que se plantea.

Horregatik guztiarengatik, kontsulta:

Por todo ello, la consulta:

- Egitekoa den arau horrek eragin diezaiekeen erakunde publiko eta pertsona fisiko guztiei ireki zaie, bai eta antolakunde, entitate eta elkartei ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren webgunean argitaratuko da.

- Se abre a todas aquellas instituciones públicas y personas físicas, así como organizaciones, entidades o asociaciones que puedan considerarse afectadas por esa futura regulación normativa.
- Se publicará en el portal web de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.





- Hogei egun balioduneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta entitateek egokitzat jotzen dituzten iradokizun eta iruzkin guztiak aurkez ditzaten.
- Se establece un plazo de veinte días hábiles para que las instituciones afectadas, la ciudadanía y sus entidades presenten todas aquellas sugerencias u observaciones que tengan por conveniente.

Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan bideratzen ari dena, aurreikusitako lege-eskemari jarraikiz. Gainera, arau-proiektua egin aurretik gauzatuko da kontsulta hori, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek arautzen duten hasiera-fasearen barruan.

Ese trámite de consulta pública es, por tanto, el que en estos momentos se realiza siguiendo el esquema legal previsto. Se efectúa, además, con carácter previo a la elaboración del proyecto normativo y dentro de la fase de iniciación que regulan los artículos 4 y 5 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuak (Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak) ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

En virtud de las competencias atribuidas por el Decreto 69/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía y Hacienda.

EBAZTEN DUT:

RESUELVO

Lehena. - Jendaurreko kontsultaren izapidearen mende jartzea, aldez aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko diru-laguntzen araubidea arautzen duen lege-aurreproiektua egitekoa.

Primero. - Someter a trámite de consulta pública, con carácter previo, la elaboración del Anteproyecto de Ley reguladora del régimen de subvenciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Bigarrena. - Herritarrek eta arauak eragindako erakundeek, hala nahi badute, hogeit hamar egun balioduneko epean helarazi ahalko dituzte ebazpen honen eranskinean azaltzen diren alderdiei buruzko iritzia, kontsulta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Segundo. - La ciudadanía y entidades afectadas por la norma, que así lo consideren, pueden hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados en el Anexo a esta Resolución en el plazo de veinte días hábiles, contados desde el día siguiente al de su publicación en el portal web de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

M^a Luz Ruiz Melendo
ZERBITZU ZUZENDARIA
DIRECTORA DE SERVICIOS

ERANSKINA

ANEXO

1.- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak:

Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) sektore publikoaren jardueraren parte garrantzitsu bat da diru-laguntzen kudeaketa, eta kontuan hartzekoa da, gainera, ikuspegi bikoitza duela: batetik, gastu publiko mota bat da, eta, bestetik, administrazioaren esku-hartze bat, interes publikokotzat jotzen diren jarduera eta jokabide jakin batzuk sustatzeko.

Administrazio-ikuspegitik, berriz, botere publikoek beren eskumenak gauzatu behar dituzten eremuetan zenbait jokabide sustatzeko teknika bat dira diru-laguntzak. Diru-laguntzak emanda, onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak edo helburu publiko jakin bat lor daitezten sustatzen dute administrazio publikoek. Diru-laguntza emango da helburu jakin bat betetzen bada, proiektu bat gauzatzen bada, jarduera bat egiten bada, jokabide berezi bat bultzatzen bada edo egoera jakin bat gertatzen bada, eta egoera horiek gertatzeak justifikatzen du administrazioaren sustapen-jarduera, bai eta diru-laguntzak emateko baldintzak jartzea, eta baldintzak bete ezean, dirua itzuli behar izatea ere.

Gastu publiko diren heinean, diru-laguntzek, ezinbestez, aurrekontu-legeetara egokitu behar dute. Aurrekontu-araubidea bete behar du gastuak, eta kreditu moduan egon behar du aurreikusita administrazio bakoitzaren aurrekontuetan. Gastu publiko orok bezala, diru-laguntzen kudeaketak zenbait printzipio bete behar ditu, hala nola gardentasuna, objektibotasuna, eraginkortasuna eta efizientzia.

Aurretik esandakoaren harira, funtsezkoa da euskal sektore publikoak kudeatzen eta ematen dituen diru-laguntzak arautzea eta kontrolatzea, esparru juridiko orokor bat eskaintzeko, eta, hala, diru-laguntzak izapidetzen dituzten erakunde guztiek behar duten segurtasun juridikoa izan dezaten eta urte hauetan zehar diru-laguntzak kudeatzerakoan sortu izan diren zalantzak argitu daitezzen.

1.- Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa:

La gestión de subvenciones constituye una parte importante de la actividad del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi (en adelante CAE) que es preciso considerar desde una doble perspectiva: como modalidad del gasto público y como forma de intervención administrativa dirigida a fomentar determinadas actividades y comportamientos considerados de interés público.

Desde la perspectiva administrativa, las subvenciones son una técnica de fomento de determinados comportamientos en los diferentes campos en que los poderes públicos han de ejercer sus competencias. A través de su concesión, las Administraciones Públicas fomentan la consecución de actividades de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública. Esta vinculación de la concesión al cumplimiento de un determinado objetivo, a la ejecución de un proyecto, a la realización de una actividad, a la adopción de un comportamiento singular o a la concurrencia de una situación justifica la propia actividad administrativa de fomento, así como su naturaleza condicional so pena de reintegro.

Como modalidad del gasto público, las subvenciones deben ajustarse necesariamente a la legislación presupuestaria. El gasto está sometido al régimen presupuestario y ha de estar previsto en forma de crédito en los presupuestos de cada Administración. Como todo gasto público, la gestión de las subvenciones ha de estar sometida a distintos principios como son la transparencia, la objetividad, la eficacia y la eficiencia.

A la luz de lo anterior, la regulación y control de las subvenciones gestionadas y otorgadas por el sector público vasco es esencial para ofrecer un marco jurídico general que ofrezca la debida seguridad jurídica a todos los órganos encargados de la tramitación de las mismas, aclarando las distintas dudas que han ido surgiendo en su gestión a lo largo de estos años.

2.- Araudia onartzeko beharra eta egokitasuna:

Orain arte, EAEGoko diru-laguntzak, nagusiki, arau honetan daude jasota: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren VI. tituluan. Titulu horrek sistematikoki arautzen du EAEGoko laguntzen eta diru-laguntzen araubide juridikoa eta, zehazki, horientzako gutxieneko administrazio-prozedura bat ezartzen zuen. Ordura arte, prozedura hori ez zegoen araututa beste lege-xedapen autonomikoren batean, partzialki baizik, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legeen zenbait arautan. Alabaina, diru-laguntzek garrantzi handia hartu dute eta, ondorioz, kasu desberdin eta konplexu ugari sortu dira, titulu horretan jasotako erregulaziotik harago doazenak.

Gerora, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra indarrean sartu zenean, sustatze-jardueraren erregulazio osoa, oinarritzkoa eta orokorra egin zuen, eta, horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko arautegian jasotako zenbait xedapen ere bildu zituen. Beraz, komeni da EAEGoak bere araua egokitzea, eta behar dituen aldaketak egitea; hori guztia diru-laguntzei buruzko arazoaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22. xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, hor jaso baitzen EAEGoan aplikatuko dela lege hori, Autonomia Estatutuan xedatutakoaren eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoaren arabera.

Xedapen horiei guztiei esker, EAEGoak, bere burua antolatzeko duen eskumenaz eta bere ahalmen sektorial eta materialez baliatuz, bere sektore publikoko diru-laguntzen arloko araubide juridikoa gauzatu ahal izan du. Araubide hori bere esparru autonomikora egokitu du; hala, hainbat urtetan zehar indarreko araudia baino antolamendu egoki eta osatuago bat ezarri da, araudi hori hobetzeko eta perfektionatzeko asmoz.

2.- La necesidad y oportunidad de su aprobación:

Hasta ahora, la regulación de las subvenciones en la CAE está recogida principalmente en el título VI del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre. Este título recoge una reglamentación sistemática del régimen jurídico de las ayudas y subvenciones dentro del ámbito de la Administración de la CAE, y, en particular, un procedimiento administrativo mínimo para concederlas, el cual, hasta aquel momento, no estaba regulado en ninguna otra disposición autonómica de rango legal, sino tan sólo parcialmente en determinados preceptos de las Leyes de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma. No obstante, la importancia que han adquirido las subvenciones ha producido una diversificación de supuestos cuya complejidad ha desbordado la regulación recogida en dicho título.

Posteriormente, la entrada en vigor de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, si bien recoge una serie de disposiciones que ya se recogían en normativa autonómica vasca, establece una regulación completa, básica y general de la actividad de fomento, haciendo que sea conveniente para la CAE la adaptación de su regulación en los términos que fueran necesarios, todo ello según lo dispuesto en la Disposición adicional 22ª de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, que recoge que la misma se aplicará en la CAE con respeto a lo establecido en el Estatuto de Autonomía y en la disposición adicional segunda de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de bases de Régimen Local.

Una lectura conjunta de estas disposiciones ha permitido que la CAE en uso de su potestad de autoorganización y en el ejercicio de sus competencias sectoriales materiales haya desarrollado el régimen jurídico en materia subvencional de su sector público, adaptándolo a su propio ámbito autonómico de tal manera que a lo largo de los años se ha establecido una ordenación

adecuada y completa que la regulación vigente con la finalidad de mejorarla y perfeccionarla.

Diru-laguntzei buruzko euskal araudia 25 urtez egon da indarrean, eta, duela gutxi, zenbait disfuncio ikusi dira bere funtzionamenduan; izan ere, bere gaitasunak eta transferentzia-prozesuak espezializatu egin dira, eta EAEko aurrekontu orokorretan pixkanaka areagotu egin dira diru-laguntzen kapituluetara bideratutako kredituak. Hori ikusita, badirudi sustapen-ekintza honen erregulazioa aldatzeko garaia iritsi dela, euskal administrazioko sustapenaren arloko segurtasun juridikoa sendotzeko. Horrez gain, diru-laguntzen hainbat alderdi objektibatze beharra ere sortu da: oinarrien eta deialdien izaera (xedapen orokorra edo administrazio-egintza), EAEko sektore publikoko erakunde instrumentalek diru-laguntzak emateko duten aukeraren ziurtasuna, edo Estatuko 38/2003 Legeak eta 8/2003 Lege autonomikoak diru-laguntzei buruzko xedapenetan eta horiek barne hatzen dituzten programetan duten aplikazioa.

Halaber, erregulazio berri bat egitea premiazkoa eta atzeraezina bihurtu da beste instantzia jurisdikzional batzuk direla medio. Hain zuzen ere, batetik, Konstituzio Auzitegiak zenbait teoria berregin ditu azken aldiko sententzia batzuetan (esaterako, 130/2013 AKE, 2013ko ekainaren 4koa; eta 135/2013 AKE, 2013ko ekainaren 6koa). Teoria horiek klasikoak ziren sustapen-ekintzarekin alderatuta eta beharrezkoa zen horiek eskumen materialei lotzea, horiek gauzatu ahal izateko, sustapen-ekintza bera administrazio-prozeduran sartzeko eskumen-iturri bihurtuz eta, hala, Estatuko oinarritzko legeen balioa indartuz (38/2003 Legea), Konstituzioaren 149.1.1, 13., 14. eta 18. artikulua berriz irakurtzeaz gain. Bestalde, azkenaldian EAEANren sententzia batzuetan, aurreko sententziak berreginez, eduki osoa eta erabateko balioa kendu diote Estatuko oinarritzko legeak EAErentzat ezarri zuen babes-klausulari. Hala, EAEko diru-laguntza programei Estatuko oinarritzko legeria betetzeko eskatzen diete (aurreko sententzietan ez bezala), baita alderdi formaletan ere, esaterako, diru-laguntzen plangintzan (zehazki, 48/2015 EAEANren sententziak, kirolen arloko programa bati buruzkoak).

Tras 25 años de vigencia de la normativa subvencional vasca y comprobadas, de modo reciente, algunas disfunciones en su funcionamiento dada la especialización material en el ejercicio de las competencias propias, los procesos transferenciales y el aumento progresivo de los créditos destinados a los capítulos subvencionales en los presupuestos generales de la CAE, parece llegado el momento de hacer un planteamiento reformista en la materia regulatoria de la acción de fomento para afianzar la seguridad jurídica en materia de fomento en la administración vasca y que toma cuerpo en la necesidad de objetivar la naturaleza (disposición de carácter general o acto administrativo) de las bases y de las convocatorias subvencionales, la certeza acerca de la posibilidad de otorgar subvenciones por los entes instrumentales del sector público de la CAE o el alcance mismo de la irrupción de las leyes estatal 38/2003 y autonómica 8/2003 en la aplicación de las disposiciones subvencionales y los programas en los que se incrustan.

Asimismo, han sido instancias jurisdiccionales las que han precipitado la urgencia e inaplazabilidad de una nueva regulación. En efecto, por una parte, el Tribunal Constitucional en recientes sentencias, tales como la STC 130/2013, de 4 de junio de 2013, y la STC 135/2013, de 6 de junio de 2013, ha venido a reformular las teorías que se entendían clásicas respecto a la acción de fomento y su necesaria unión a las competencias materiales para su ejercicio convirtiendo la propia acción de fomento en fuente de competencia susceptible de ser incardinada en un procedimiento administrativo, reforzando así el valor de lo básico estatal (Ley 38/2003) ex relectura de los artículos 149.1.1, 13, 14 y 18 de la Constitución; y, por otra parte, han comenzado a verse sentencias del TSJPV que, reformulando sentencias anteriores, han venido a privar de contenido completo y valor total a la cláusula de salvaguarda que para la CAE introdujo la ley básica estatal, exigiendo a los programas subvencionales de la CAE (en sentido diametralmente opuesto a sentencias anteriores) el cumplimiento de lo básico estatal incluso en aspectos formales tales como la planificación de las

subvenciones (en particular la STSJPV 48/2015, en relación con un programa en materia de deportes).

Hori horrela, beharrezkotzat jo da arauak berregitea, administrazio honen diru-laguntzen arloko segurtasun juridikoa eta araudi osatuagoa, unitarioagoa eta gardenagoa bateratuz, bere sustapen-ekintzan. Horretarako, gure administrazioaren sustapen-ekintza babesten duen diru-laguntzen sistema aplikatzean ahalik eta zalantza gutxien sortuko dituen testu barne-hartzaile bat sortu behar zen.

Así las cosas, se hacía necesario una reformulación que conjugase la máxima seguridad jurídica en materia subvencional en esta administración con una normación más completa, unitaria y transparente en su acción de fomento en un texto integrador que eliminase la mayor cantidad de dudas interpretativas en la aplicación del sistema subvencional que ha de amparar la acción de fomento de nuestra administración.

Azkenik, diru-laguntzen araubidea erregulatuko duen arauak Eusko Legebiltzarraren legea izan behar du, alde batera utzi gabe Administrazioak hori garatzeko, diru-laguntzen programak erregulatzeko (Legebiltzarrak onetsitako kredituetan oinarrituta) eta diru-laguntzak emateko administrazio-egintzak ezartzeko duen ahalmena. Hala, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bateginaren 2. artikulua ezartzen duenez, "lege bidez arautu beharko dira ogasun nagusiaren berezko gaiei dagozkien oinarrizko hastapenak", eta arau beraren 1. artikulua araberak, "laguntza eta diru-laguntzetarako errejimen orokorra" Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasunaren berezko gaietako bat da.

Por último, el rango de la norma reguladora del régimen de subvenciones ha de ser una Ley del Parlamento Vasco, sin perjuicio de la capacidad de la Administración para su desarrollo reglamentario, para la regulación de los programas subvencionales en base a los créditos aprobados por el Parlamento y para dictar los actos administrativos de otorgamiento o concesión. Así, el artículo 2 del Texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco recoge que "serán objeto de ley los principios básicos referentes a las materias propias de la Hacienda General", siendo según el artículo 1 de la misma norma "el régimen general de ayudas y subvenciones", materia propia de la Hacienda del País Vasco.

3.- Arauaren helburuak:

Horren bidez egin nahi den erregulazioaren helburua da EAEGoko sektore publikoko diru-laguntzen ikuspegi unitarioa, integrala eta homogeneoa lortzea.

3.- Los objetivos de la norma:

La regulación que se acomete pretende una visión unitaria, integral y homogénea de la actividad subvencional del sector público de la CAE.

Hori dela eta, lege-aurreproiektuan erregulartzat jo dira, besteak beste, honako alderdi hauek, EAEGoko diru-laguntzen araubidea hizpide:

En tal sentido, se ha considerado regular en el Anteproyecto de Ley, entre otros, los siguientes extremos, referentes al régimen de subvenciones de la CAE:

a) Xedapen orokorrak:

- Arauaren aplikazio-eremu subjektiboa
- Diru-laguntza kontzeptua.
- Onuradun kontzeptua.
- Erakunde laguntzaileak.
- Diru-laguntzen kudeaketan bete behar diren printzipio orokorrak.
- Diru-laguntzen planifikazioa eta ebaluazioa.

a) Disposiciones de carácter general:

- El ámbito subjetivo de aplicación de la norma.
- El concepto de subvención
- El concepto de persona beneficiaria
- Las entidades colaboradoras.
- Los principios generales que deben presidir la gestión de las subvenciones.



- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> - Euskal Autonomia Erkidegoko Diru Laguntzen Erregistro Nagusia, diru-laguntzen kudeaketan publikotasun, kontrol eta gardentasunerako tresna izan dadin. | <ul style="list-style-type: none"> - La planificación y evaluación de las subvenciones. - El Registro de subvenciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi como instrumento de publicidad, control y transparencia en la gestión de las subvenciones. |
| <p>b) Diru-laguntzak emateko eta kudeatzeko prozedurak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Emateko prozedura arrunta. - Zuzeneko diru-laguntza. - Diru-laguntza izenduna. | <p>b) Los procedimientos de concesión y gestión de las subvenciones:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Procedimiento de concesión ordinario. - Concesión directa. - Concesión nominativa. |
| <p>c) Diru-laguntzak justifikatzeko eta haien aurrekontua kudeatzeko prozedura.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Diruz lagundu daitezkeen gastuak. - Azpikontratazio-araubidea. - Diru-laguntzen justifikazioa eta egindakoa nola egiaztatuko den. | <p>c) El procedimiento de justificación de las subvenciones.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gastos subvencionales. - Régimen de subcontratación. - Justificación de las subvenciones y modos de comprobación. |
| <p>d) Diru-laguntzen aurrekontuak kudeatzeko prozedura.</p> | <p>d) El procedimiento de gestión presupuestaria de las subvenciones.</p> |
| <p>e) Diru-laguntzak emateko egintzak berrikustea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Diru-laguntzak itzultzeko arrazoiak. - Dirua itzultzeko prozedura. - Preskripzioa. | <p>e) La revisión de los actos de concesión de subvenciones.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Causas de reintegro de las subvenciones. - Procedimiento de reintegro. - Prescripción |
| <p>f) Diru-laguntzen arloko arau-haustek eta zehapenak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Arau-haustek. - Zehapenak. - Zehatzeko ahala erabiltzeko eskumena duten organoak. | <p>f) Infracciones y sanciones en materia de subvenciones.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Infracciones. - Sanciones. - Órganos competentes para el ejercicio de la potestad sancionadora. |

4.- Egon daitezkeen irtenbide alternatiboak: arautzekoak eta ez arautzekoak.

Lege honen helburua izango da araubide juridiko propioa osatzea, oinarritzko erregulaziotik urruntzen diren gure antolamendu-ezaugarrietara egokitutakoa. Hori, hobeto aplikatzeko, lege horretatik bereizitako edukian sartzen da.

4.- Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Con esta ley se pretende articular un régimen jurídico propio de acuerdo a nuestras peculiaridades organizativas, con respeto a la regulación básica, la cual para una mejor aplicación se integra dentro del contenido propio o diferenciado de esta ley.



Horrek ez du esan nahi lege batek estatu-araua osorik barne hartu behar duenik eta gure erregulazioa bertan behera utzi behar duenik EAEko Ogasun Nagusiaren arloan; alderantziz, estatu-arauak berak zaintzen ditu euskal estatutuen esparrutik ondorioztatzen diren espezialitateak, eta euskal arauak, oinarritzko legeak errespetatuz, bere euskal diru-laguntzen antolamendua eta bere espezialitate materialak ezar ditzake.

Hain zuzen ere, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak araudi-esparru orokor bat ezartzen du diru-laguntza publikoentzat, kontuan izanda horien tratamenduaren araudi-dispersioa, arlo honekin zerikusia duten gaiak sistematizatuko dituen arau integratzaileak legeriarik eza, eta lege-hutsuneak eta -gabekiak daudela. Azken xedapenetatik lehenak ezartzen ditu Estatuak oinarritzko legeria hori ezartzeko duen eskumena legitimatzen duten eskumen-tituluak, baita titulu horien arabera oinarritzkoak diren arauak ere. Hala, Konstituzio Auzitegiak dagoeneko aipatutako epaietan adierazi du, Estatuak ekonomiaren antolamendu orokorrean dituen eskumenetan, administrazio publikoen eta administrazio-prozedura erkidearen araubide juridikoetan, eta 38/2003 Legean araututako diru-laguntzen prozeduran oinarrituta, ez dela *ratione materiae* prozedura berezi bat; Konstituzioaren 149.1, 13. eta 18. artikuluetan araututako eskumen-tituluak zabalago interpretatze aldera, diru-laguntzen administrazio-prozedura erkide bat sortu da *ex novo*.

Diru-laguntzen eskatzaileei, onuradunei edo erakunde laguntzaileei -berdin dio zein den Administrazio emailea- tratamendu uniforme bat bermatuko dien araubide juridiko erkide baten antolamenduak ez du esan nahi autonomia-erkidegoek ezin dutenik, beren burua antolatzeko ahalmenaz baliatuz eta diru-laguntzen figura berri honen oinarritzko erregulazioa errespetatuz, beren eskumen-esparruari dagozkien diru-laguntzen araubide juridikoa garatu. Legeak erantzun behar die erronka horiei guztiei.

Ello no nos debe conducir a pensar en una ley que tome al completo la norma estatal y que extinga el espacio de nuestra propia regulación en esta materia propia de la Hacienda general del País Vasco, bien al contrario, sucede que la propia norma estatal salvaguarda aquellas especialidades que se deriven del ámbito estatutario vasco y que la norma vasca puede, respetando lo básico, establecer su propia no solo organización subvencional vasca sino también sus propias especialidades materiales.

Efectivamente, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones recoge un marco normativo general para las subvenciones públicas dada la dispersión normativa de su tratamiento, la ausencia de legislación que con pretensiones integradoras sistematizase las cuestiones relacionadas con esta materia, y la existencia de vacíos y lagunas legales. La disposición final primera establece los títulos competenciales que legitiman la competencia del Estado para el establecimiento de esta legislación básica, así como los preceptos que de acuerdo con estos títulos revisten carácter básico. Así, el Tribunal Constitucional en las sentencias anteriormente señaladas se ha pronunciado en el sentido de que sobre la base de las competencias del Estado sobre ordenación general de la economía, bases del régimen jurídico de las Administraciones públicas y procedimiento administrativo común, el procedimiento subvencional regulado en la Ley 38/2003, desde una perspectiva general o abstracta, no es un procedimiento especial *ratione materiae*, sino que por mor de una interpretación expansiva de los títulos competenciales regulados en los artículos 149.1.13 y 18 de la Constitución se crea *ex novo* un procedimiento administrativo común de subvenciones.

La ordenación de un régimen jurídico común que garantice un tratamiento uniforme a los solicitantes de subvenciones públicas, beneficiarios o entidades colaboradoras, cualquiera que sea la Administración otorgante, no impide que las Comunidades Autónomas, en uso de la citada potestad de autoorganización y respetando la regulación básica de esta nueva figura subvencional, desarrollen el régimen jurídico propio de las subvenciones correspondientes con su ámbito competencial. A todos estos retos debe responder esta ley.



Arautzeko irtenbideetan, aurreko zenbakian adierazitako edukia da gutxienez eta nahitaez bete behar dena.

Hala nola, arauak, bere artikuluen bidez, diru-laguntzen arloko oinarrizko printzipio juridikoak aplikatu daitezkeen nahi izango du, eta horretarako bere enuntziatuetara egokitutako neurri zehatzak ezarriko ditu.

Herritarrek eta arauak eragiten dien erakundeek hogeitun egun balioduneko epea izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren web atarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, iragarki honetan planteatutako alderdiei buruz haien iritzia eta iradokizunak helarazteko.

Nolanahi ere, proposatutako araudi-proiektua jorratzeko hurrengo izapideetan (nahitaezkoak direnetan eta ez direnetan) garatu beharreko partaidetza-neurri osagarriak baliatu ahal dira.

En cuanto a las alternativas regulatorias, el contenido expresado en el número anterior es el que también se impone con carácter mínimo y preceptivo.

En cualquier caso, la norma procurará, a lo largo de su articulado, la aplicación de los principios jurídicos básicos en la materia subvencional, mediante la adopción de medidas concretas adecuadas a sus enunciados.

La ciudadanía y entidades afectadas por la norma, que así lo consideren, pueden hacer llegar sus opiniones y sugerencias sobre los aspectos señalados en el plazo de veinte días hábiles, contados desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio en el portal web de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Ello sin perjuicio de las medidas adicionales de participación a desarrollar en los sucesivos trámites, preceptivos o no, de la tramitación del proyecto normativo propuesto.